

EMAKUMEAK ETA LAN HARREMANAK

- **Jakintza adarra:** Gizarte eta Lege Zientziak
- **Campusa:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea
- **Gradua/k:**
 - Gradu Bikoitza: Negozioen Kudeaketa + Lan Harremanak eta Giza Baliabideak
 - Lan Harreman eta Giza Baliabideak
- **Garapen-lekua (helbidea):** Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Sarriena auzoa z/g, Leioa

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Helburuak:

1. Bigarren Hezkuntzako ikasleak unibertsitate-munduaren errealitatera hurbiltzea
2. Irakasle orientatzaileen lana erraztea
3. Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako graduaren gizarte-ezagutza zabaltzen laguntzea eta interesa izan dezaketen ikasleak erakartzea

Hurrengo kasu praktikoa proposatzen da, lan-zientziei lotua, bi taldetan jorratzekoa, bata euskaraz, eta bestea gaztelaniaz: **Emakume langilearen egoeraren ikuspegi historikoa emango da, zinema tresna gisa erabilia.**

Lortu nahi diren emaitzak:

1. Irakaskuntza ertainetako ikasleak lan-munduarekin lotutako hainbat jakintza-arlotan sartzea
2. Lan Harremanen eta Giza Baliabideen Graduan eskuratzen diren konpetentzia profesionalen garrantzia identifikatzea
3. Garapen Iraunkorraren Helburuekin lerrokatzea
4. Lan-harremanak eta giza baliabideak ikasteko bokazioak piztea
5. Lan Harremanen eta Gizarte Langintzaren Fakultatearen jarduera zientifiko-teknikoa zabaltzea

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

Hasierako saio labur batean ondokoak aurkeztuko dira:

- Tituluak dituen lanbide-aukerak
- Tituluan landuko dituzten gaitasunak
- Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean kanpo-praktikak duten garrantzia ikastegiak zientzia-ezagutza hedatzeko eta garatzeko egiten duen jardura

Praktikan ondoko gaiak jorratuko dira:

- Emakumearen egoeraren bilakaera historikoa Lan Harremanetan.
- Historikoki emakume langilek lantoki desberdinetan jasan izan dituzten jazarpen egoerak eta hauei aurre egiteko baliatu izan dituzten estrategiak.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

GIZARTEAREN ETA LAN HARREMANEN HISTORIAKO PRAKTIKA (EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ): emakume langileen berdintasunaren aldeko borroka luzea

Emakumeen lan-eskubideak lehen mailako gaia dira lan-munduan berdintasuna aldarrikatzen jarraitzen duten eragile eta mugimendu sozialentzat. Ariketa honen bidez, emakumeen lan-baldintzen aldaketak borroken ibilbide luzearekin bat datozela erakutsi nahi dugu historia sozialak eskaintzen dizkigun tresnekin.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordua	Plazak
2026-01-21	Euskara	Goizez	11:00-13:00	50
2026-01-21	Gaztelania	Goizez	11:00-13:00	50